

Espediente moetea: Administrazio kontratazioa

Kontratua: Zerbitzu publikoen kudeaketa kontratua, prozedura negoziadua publikidadeagaz (Emakidea)

Espediente zenbakia: KU8-6

**BERMEOKO NESTOR BASTERRETxea ARETOA USTIATZEKO
ADMINISTRAZINO EMAKIDEA EGITEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN
PLEGUA**

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1.- KONTRATUAREN GAIA.-

Kontratuaren gaia hau da:

1.1.- Bermeoko Nestor Basterretxea Aretoaren ustiapen zinematografikoa gauzatzea Bermeoko Udalaren zuzendaritzapean.

1.2.- Beharrezkoa dan giza baliabide edo langileak eskaintzea bai udaleko Kultura Sailak eskaintzen dauen kultura egitaraua jorrazteko, bai herritarren parte hartze aktiboa bermatuz, kultur taldeek edo herriko artistek burututa eskaintzen diran ikuskizunak aurrera eroateko.

2.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA.-

Zerbitzuaren iraunaldia honako hau izango da: urte bat. Kontratuaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik hasita kontatuko da epe hori eta urtero luzatu ahal izango da, alde biak ados egon ezker.

Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barruan dirala, ez da 4 urte baino gehiagokoa izango.

3.- KONTRATUAREN KANONA.-

Kontratuaren urteko kanona, gitxienez, honakoa izango da: 3.000 €

Parte-hartzaileek diru-kopuru hori hobetu leikie.

4.- FINANTZIAZINOA.-

Esleipendunak Udalari eskainiko deutsozan zerbitzuak ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Bestalde, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan, behar beste kreditu jarriko dauz jagokon organoak.

5.- ORDAINKETA MODUA.-

Kanona:

Emakidadunak ordaindu beharreko urteko kanona adjudikaturiko eskaintzan jasotakoa izango da, beti be, udalak jarritako gitxiengoa errespetatuz. Ordainketa, hiru hilabetero izango da, eroldaz kitatuta.

Udalak eskaintzen dauzan ekintzak edo herritarren parte hartzea helburu daben ekintzak:

Ekintza honeen burutzapenak emakidadunari erakarten deitsozan gastuak saihesteko, hile bakotxeko ekintzak burutu eta gero, esleipendunak faktura bat aurkeztuko dau udaleko Kultura Sailean, egindako lan guztien deskribapenagaz. Kultura sailaren oneritxiagaz, bankuko transferentzia bidezko ordainketea egingo da, bi hilabete biko, 30/2007 SPKLren 200. artikuluan aurreikusten dan moduan faktura erregistroan sartzen dan egunetik zenbatzen hasita.

Honelako ekintzak burutzen diranean, emakidadunak hurrengo hiru egunetako epearen barruan sarreren salmentaren bitartez eskuratu dan dirua, udalaren kontu zenbakian sartu beharko dau.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA.-

Zerbitzuaren erabiltzaileei tarifak urtero igo ahal izango jakez eta igoera hori Kultura batzordeak eta jagokon sailak onetsi beharko dau. Aurreko urteko KPlaren % 85aren araberakoa izango da.

Emakidadunak zerbitzuak emoteko eskaini dauzan prezioei be, erispide horixe aplikatuko jake.

7.- BERMEAK.-

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dauzala bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar dau.

Berme horren zenbatekoa hau da: 3.000 € Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 83 artikulua araberakoa.

Berme hori ipinteko epea egutegiko hamabost eguneko izango da, kontratuaren behin behineko esleipena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea ipinteko bidea, barriz, prezioaren atxikipena izan daiteke, edo, bestela, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84 artikuluan azaltzen diran bideetatik edozein.

Kontratua amaitzen danean, esleipendunari bermea itzuliko jake, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badagoz. Itzulketak hori goian aitaturako Legearen 90. artikuluan xedatutakoagaz bat etorri egingo da.

8.- KONTRATUA BURUTZEA.-

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Zerbitzuak egiterakoan, agiri honetan dagozan baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak be, halakorik egonez gero. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango dauz ahalmen horreek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotzi dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste badau kontratua behar dan moduan burutzea kolokan dagoala, kontratua behar dan moduan burutu daiten beharrezkotzat jotzen dauzan neurriak hartu daitezala agindu ahal izango dau.

9.- EMAKIDADUNEN BETEBEHARRAK.-

1. Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienaren arloan indarrean dagozan legezko xedapenak bete behar dauz. Administrazioak ez dau inolako erantzukizunik izango xedapen horreek beteten ez badira.
2. Lanak egiten jardungo dauen enpresek, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei jagokenean, aurrez-aurreko hartu-emon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Udalak euskerea baino ez dau erabiliko bere hartu-emonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskainiko.
3. Behin behineko esleipena egin ondoren, esleipendunak betebeharrak honeek eukiko dauz, esleipen jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita:

Egutegiko hamabost (15) eguneko epean, behin behineko esleipena jakinarazoten jakonetik zenbatzen hasita, esleipendunak hiru mila euroko (3.000 €) behin betiko bermea eratu eta aurkeztu beharko dau udaleko Diruzaintzan, SPKLko 84. eta ondorengo artikulua jarraiki. Era berean, pleguetan eskatu eta, aurkeztu ez dauzan agiriak aurkeztu beharko dauz 15 eguneko epe honetan.

- 4.- Formalizazio agiria.

Esleipendunak, hamar laneguneko epean (10), behin betiko esleipena jakinarazo eta hurrengoko egunetik zenbatzen hasita, kasuan kasuko kontratu agiria izenpetu beharko dau. Kontratu hau administrazio agirian formalizatuko da.

Ondoren guztietarako, kontuan hartuko da SKPLko 140. artikuluan ezarritakoa.

- 5.- Esleipendunaren kontura izango dira, kontratua formalizatzearen ondoriozko gastu eta zerga guztiak, baita publizitate gastuak be.

Administrazioak eskaintzearen edukia egiaztatzeko ahalmena dauka, kontratua esleitu baino lehen.

- 6.- Enpresariari leporatzeko moduko arrazoen eraginez kontratua formalizatu ezin danean (aurreko klausulan zerrendaturiko agiritan akatsak egotearen edo agiri

guztiak ez egotearen ondorioz), Administrazioak horren ebazpena erabagiko dau, interesaduak esan beharrekoa entzun eta gero.

7.- Industriari emondako babesak:

Kontratasteak bete egin beharko dauz nazinoko industria antolatzearen eta defendatzearen arloan indarrean dagozan xedapen guztiak.

8.- Aseguruak:

Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritakoaren kalterik gabe, kontratasteak, zerbitzurako modu orokorrean, erantzukizun zibileko aseguru sinatuko dau, alderdi orokorrean, patronalean eta amaituriko lanen arloan, eta kontratastea eta azpikontratastea bertan babestuta egongo dira, gitxienez 90.151,82 €tako zenbatekoan, kontratuaren betebeharrak garatzearen eta zerbitzua betearaztearen ondorioz gainontzekoei egiteko moduko kalte zuzenarako eta zeharkako kalteetarako.

Aseguruak, gehienez jota, hamabost (15) eguneko epean emon beharko da, behin behineko esleipena jakinarazo eta hurrengoko egunetik zenbatzen hasita. Zenbateko hori txikiena eta banaezina izango da, baina gainontzekoei sor tu leikiezan eraginetara hedatuko da, zerbitzu osoari jagokonez, kontratastearen erantzukizunari eskatzeko modukoak diran neurrian (indarreko araudiaren arabera eta bidezko jardute guztien bitartez).

Aseguru hori kontratatu arren, kontratasteak bete egin beharko dauz erantzukizun guztiak, eta, beraz, Aseguru Konpainiak ezarrita daukazan ez-betete guztiak bere gain hartu beharko dauz.

9.-Gainontzekoei emondako baimenak:

Administrazioak eta zerbitzuaren Zuzendaritza euren gain hartzen dabezan kontratuak eta kudeaketak ez ezik, kontratasteak norbanakoei, alkarteei, enpresei eta erakundeei zerbitzua ondo beteteko emon beharreko baimen eta lizentzia guztiak bere kontura egin beharko dauz.

Horretarako, kontratasteak eraginpeko bakoetak bere eskubideak nahiz eskumenak erabiliz ezarten deutozan baldintza guztiak onartu beharko dauz, baita zentzuzko eskabide edo gomendio guztiak be, baldin eta horreek Administrazioaren eretxiz komenigarriak izan zerbitzuaren ibilera onerako.

10.- Baldintza Plegu hau eta ganerako arau aplikagarriak aplikatzearen ondorioz sorturiko legezko betebeharrak ez ezik, kontratasteak honako betebeharrak honek be eukiko dauz:

a) Zerbitzuak ezarritako jarraitasunarekin emotea eta norbanakoei zerbitzu hori Baldintza Teknikoek ezarritakoaren arabera erabilteko eskubidea bermatzea; ganera, bidezkoa izanez gero, onetsitako tarifetan jasotako ordain ekonomikoa egitea.

b) Ezarritako kanona ordaintzea, adierazitako epean.

c) Kontratuaren ondorioz legez eskatu daitekezan zergak ordaintzea, baita egin beharreko jardueren araberrako betebeharrak fiskalak be.

d) Instalazioak eta elementu osagarriak egoera onean kontserbatzea, beharrezko konponketak eginez. Instalazio horreek itundutako helburuetarako bakarrik

erabiltea.

- e) Instalazioen zaintzeari, jendeari tratu ona emoteari eta ibilerearen ganerako baldintzak beteteari jagokenez, udalak hartu eta jakinarazotako banakako aginduak eta jarraibideak aplikatu beharko dira.
- f) Udalak ezarritako baldintzak beteten dabezan pertsona guztiei, zerbitzua gozaten eta erabilten itziko jake.
- g) Kontratuaren iraupena amaitutakoan, edo lanak amaitzen diranean, instalazioak eta elementu osagarriak jaso diran egoera berean itzultzea.
- h) Itzitako instalazioetan edo emondako zerbitzuan hobekuntza edo aldaketarik ez egitea, Udalaren berariazko eta formazko baimen barik, horrek ekimenaren ondorio negatiboetara buruzko erabagia hartuko dau.
- i) Emakidea egin dauen Administrazioaren ondasunak edo instalazioak baimen barik ez besterentzea edo zergapetzea.
- j) Langile guztien itxurea, garbitasun eta higiearen erantzukizuna hartzea, baita instalazioak erabiltzen dabezan herritarren tratu egokiaren erantzukizuna be; instalazioak eten barik egongo dira funtzionamentuan.
- k) Zerbitzuaren ordena ona zaintzea, eta horretarako bidezko aginduak emon ahal izango dira, 255. artikuluan aitaturiko polizia podereen kalte barik.

Baldintza teknikoetan adierazotako bestelakoak.

10.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BAJAKEZ.-

Esleipendunaren ardurea da kontratuko eragiketen ondorioz sortu leikezan kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 198. artikuluan xedatutakoagaz bat etorriz.

11.- KONTRATUA ALDATZEA.-

Herri-onurako arrazoiak dirala eta, Administrazioak kontratua aldatu ahal izango dau, behar barriak edo ustebako arrazoiak sortzen diranean. Esleipendunak ez dau inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik eukiko.

Kontratuaren aldaketea SPKLren 258 artikulua eraenduko dau 262. artikuluan ezarritakoaren kalte barik.

12.- ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA.-

Kontratu-mueta honen izaerea dala eta, ez da berme-eperik jarri behar.

13.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETEN EZ BADAUZ.

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRALA-ETA

Esleipendunaren erruagaltik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu barik badago, Administrazioak aukera bi izango dauz: kontratua bertan behera itzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igaroten dan egun bakoitzeko diru-zigorra ezartea: egunean 0,12 euro kontratuaren prezioaren 601,01 euroko.

Atzerapenari jagokozan zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen dauen bakoitzean, kontratazino-organoak aukera izango dau kontratua bertan behera izteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin daitela erabagiteko.

B) PRESTAZINOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DALA-ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazinoen burutzapen partziala epean amaitzen ez badau, Administrazioak aukera bi izango dauz: kontratua bertan behera iztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartea.

14.- KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK.-

SPKLko 262. eta ondorengo artikuluan berariaz ezarritako arrazoiak dagozanean amaituko da.

Ganera, Udalak kontratua iraungiko dau, adjudikatariak honako betebeharrak honeek urratzen dauzanean:

- Behin betiko fidantzea adierazotako epean betetea eta bidezkoa danean osatzea.
- Kontratua adierazotako epean formalizatzea.
- Gerta leikezan ezgaitasunen eta bateraezintasunen barri hamabost (15) eguneko epean emotea.
- Ustiapena 15 egunetik gora bertan behera iztea.
- Ezarritako tarifak eta prezioak justifikazino barik aldatzea.
- Jabari publikoak kontratukoak adierazotakoak ez diran erabileretara bideratzea, Fundazioaren baimen barik.
- Banakako enpresaria hiltzea eta Soziedade emakidaduna desegitea edo porrot egitea, kalte-ordainerako eskubiderik egon barik.
- Egindako adierazpenak edozein unetan ez betetea edo esandako gauzak egiazkoak ez izatea.
- Fundazioaren eta emakidadunaren arteko akordioa; kasu honetan, adostasunez, ordaindu beharreko kalte-ordaina ezarriko da.
- Baldintza Teknikoetan adierazotako generako arrazoiak.

Kontratua ebazteko, kasuan kasuko espedienteak behar da, eta emakidadunak esan beharrekoa entzungo da, 15 eguneko epean; ganera, hori Kontratazino organoak onetsi beharko dau.

15.- ADMINISTRAZINOAREN ESKUBIDEAK.-

Administrazioari jagoko a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sortu leikezan zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiakaitik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera emotea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako mugea, baldintzea eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16.- ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA.-

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Herri Administrazioen SPKLren 156.b) artikuluan jasotako kasua dalako.

Edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu leike parte-hartzaileakaz, kontratuaren gaiari lotuta badago.

Baldintza teknikoen 9. puntuan isladatzen **rtzen** dira, honakoak izango dirala:

- Zerbitzuen eskaintza ekonomikoa. (%25a)
- Nestor Basterretxea ustiatzeko proiektua, zine emonaldiak eta eskeiniko diran lanak, kultura saileko programaziorako. (%35a)
- Urteko kanonari buruzko eskaintzarik onena. (%25a)
- Proposaturiko hobekuntzak, ordain ekonomikorik sortu ez eta zerbitzuagaz kalidatea hobetzeko balio badabe. (%15a)

17.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.-

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna daukien pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dabe kontratazio-jardunbide horretan, euren kaudimena eta fidagarritasun teknikoa edo profesionala frogetan badabe, eta kontratatzeke debekuren bat ez badabe, SPKLren 49. artikuluan adierazotako arrazoiak dirala-eta.

Pertsona fisiko edo juridikoek euren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dabe. Ordezkariak kontratatu ezker, berariaz emondako ahalorde askietsia erabili beharko dabe. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen danean, ordezkari izateko ahalmena daukiela probatu beharko dau agiri bidez. Kasu bietan be, kontratatzeke gaitasunik eza dakarreen arrazoiak, gorago aitaturakoak, ordezkariari be aplikatu behar jakoz.

Ganera, lehiatzaileen jardura nagusiak zerikusi zuzena izan behar dau kontratu honen gaiagaz, eta euren erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material euki behar dauz, hori kreditatzeko, SPKLren 64. artikuluko a) atalean eta 67. artikuluko a) atalean finkatzen dan bideekaz kreditatu beharko da.

18.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.-

Kontratazio honen baldintza plegu tekniko-administratiboak, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango dira:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO
ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Zapatuetan 10:00 – 13:00.

EPEA: Proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Parte hartzeko proposamenak aurkeztu ahal izango dira, honako lekuan:

LEKUA: BERH@Z BULEGOA. Ertzilla kalea 6-8 48370 BERMEO
ORDUAK: Astelehenetik barikura 08:30-14:30. Martitzenatan eta eguenatan 16:30 – 19:00. Zapatuetan 10:00 – 13:00.

EPEA: 10 egunetan iragarkia web orrialdean publikatzen denetik.

Lehiatzaileek kartazal bakarria aurkeztu beharko dute itxita (“A” kartazala). “A” kartazalaren azpigitulua hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:

- Jagokon Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data eta IFZ kopia.
- Administrazioarekin kontratatu ahal dauela egiaztatzen dauden eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
- Arduradunaren NAN.
- Kontratatzeko debekurik ez daukala aitortzea (II Eranskina).

d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dauzala kreditatzen dabezan ziurtagiriak.

e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari jagokon epigrafean hain zuzen be, alta emon deutoela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko dau, uneko ekitaldian bertan hartua badau, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti be, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko dau.

f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VI. Eranskina).

g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (V. Eranskina).

h) Proposamen horretan, Nestor Basterretxea aretoa ustiatzeko proiektua azalduko da:

- Xedea
- Helburu orokorrak
- Hartzaileak
- Metodologia
- Giza-baliabideak
- Ordu-tegiak

j) Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroan izena emon badago, a), b), c), d) eta e) dokumentazioaren ordeztu hau aurkeztu beharko da:

k) Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emonda dagoen indarreko egiaztagiria.

l) Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diran eta indarrean dagozan zinpeko aitortpena (IV. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu daitezke. Kopiak aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar dauz.

Lizitazio baldintzak betetzen dabezan enpresei proposamena aurkezteko gonbitea bialduko jake. Proposamen hori aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, gonbitea bidaltzen danetik zenbatzen hasita.

Proposamena, "B" kartazalean sartuko da. Kartazal horren titulua hau izango da: "PROPOSAMENA". Hona hemen "B" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

Proposamen bakarra, eskaintzaileak edo aurkezten dauen pertsonak sinatuta, administrazio-klausula partikularren Pleguaren I Eranskin gisa agertzen dan ereduaren arabera idatzita.

Ez dira onartuko proposamen honeek:

- Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak daukiezanak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen dauena argi ikustea eragozten badabe.
- Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gairiditzen dabenak.
- Proposamenaren zenbatekoan akats argia dabenak.
- Pleguaren I. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dabenak.
- Eskatzailearentzat bideraezin egiten dabezan akatsak edo funtsik ez daukiezanak.

Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoagaz bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badau salbu.

Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dau. Pleguan baimena emoten bada bakarrik, soluzio aldakorrek izan ahalko dauz; hortaz, eskaintza ekonomikoak be ezbardinak izan ahalko dira.

19.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZINOA.-

Kontratua formalizatuko da, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 30 eguneko epean.

Kontratua formalizatu baino arinago, esleipendunak behin-betiko bermea kontsignatuko dau. Horretarako 15 egun izango dauz, behin-behineko esleipena publikatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratua esleipendunaren erruagaitik formalizatzen ez bada, Udalak bertan behera utzi daike kontratua, interesdunari entzunaldia emon ondoren eta kalte galerak ordainduz.

20. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA.-

Kontratazio organoak uko egiten badeutso deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura barriz hastea erabakitzen badau, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko deutse, eta Europako Batzordeari be jakinaraziko deutso erabaki hori kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin daike erabaki, behin-behineko esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dabezan gastuak konpentsatuko jakez, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen dabezan printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengaitik baino ezin izango jake uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede beragaz beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diran arrazoiak bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez dau eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar dan kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez dan guztiari jagokonez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez

gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak be.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

21. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA.-

30/2007 Legearen 37. artikuluko 2. atalean aipatzen diran erabakiak, harmonizatutako erregulazioaren mende dagozan kontratuen esleipen prozeduretan hartzeko, subentzionatutako kontratuak, II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dagozan eta 206.000 euroko edo gehiagokoak diran zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa daukien zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, artikuluko honetan arautzen dan kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira. 97. artikuluan arautzen dan larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emongo.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira behin-behineko esleipen akordioak, lehiaketa arautzen dabean baldintza agiriak eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dabeanak, eta aurreko prozeduran hartutako tramite ekintzak, betiere azken horreek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badabe, prozedura jarraitzea eragozten badabe edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badabe.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte beste ekintza batzuei eragiten deuten tramitazio akatsak espedientea egitea jagokon organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango deute interesdunek, zuzen daien, eta behin-behineko esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten deuten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalte barik.

Errekurtsua beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dabean pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dabe, edo errekurtsuaren xedea diran erabakiengaitik kaltetuak izan daitekezanak eta, edozein kasutan, lehiatzaileek. Autonomia erkidego bakoitzeko arauk ezartzen dabenen kalte barik (eta edozein kasutan, administrazio bidea agortzen dabenean erabakiak emongo dabean organo batek izan beharko dau eskumen hori), errekurtsu berezia ebazteko eskumendunak izango dira: kontratazio organoa administrazio publiko baten kontratuak badira, edo erakunde kontratatzailea atxikita dagoan saileko, organoko, erakundeko edo organismoko burua edo haren zaintza daukana, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Azkeneko kasu horretan, erakunde kontratatzailea administrazio bategaz baino gehiagogaz lotuta dagoenean, kontrol edo partaidetza nagusia daukanari jagokon organoa izango da eskumenduna.

Kontratu subentzionatuei jagokenez, eskumena izango dau subentziora eman dauen saileko, organoko, erakundeko edo organismoko titularrak, edo subentziora eman dauen erakundea atxikita dagoenekoak, horrek ez badauka administrazio publiko izaerarik. Sektore publikoko subjektu desbardinatuko subentzioak dagozan kasuetan, zenbateko handieneko subentziora kontuan hartuta zehaztuko da eskumena eta, zenbateko bardinetan, lehenengo eman dana kontuan hartuta.

Kontrako berriazko zehaztapenetan izan ezik, kontratazio arloko errekurtsu berezia ebazteko eskumena kontratatze eskumenagazn batera emon dala ulertuko da. Hala ere, kalteen ondoriozko kalte-ordainak ezartzeko ahalmena ezin izango da eskuordetu, eta horren gainean, edozein kasutan, organo esku ordetzaileak ebatzi beharko dau. Eragin horreetarako, kalte-ordain bat onartzea bidezkoztat joz gero, espediente organo esku ordetzaileari igorriko jako, eta harek, aurretiaz eta berriaz eskumenak bereganatu behar barik, jagokon errekurtsuaren gainean ebatziko dau.

Kontratazio arloan errekurtsu berezia ezartzeko epea hamar lanegunekoa izango da, aurkaratutako ekintza jakinarazten edo argitaratzen dan egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta. Errekurritutako ekintza kontratuaren behin-behineko esleipena bada, epea zenbatuko da ekintza hori egunkari ofizial baten edo kontratazio organoaren kontratatzailearen eskakizunetan argitaratzen dan egunaren biharamunetik aurrera, 135.4 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Errekurtsu idazkia kontratazio organoaren erregistroan aurkeztu beharko da, edo errekurtsuaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan. Idatzi horretako akatsak, hala bajagoko, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Kontratuaren esleipen prozedura 96. artikuluan aurreikusitako premiazko bidetik tramititzen bada, errekurtsua aurkezteko epea zazpi lanegunekoa izango da, eta akatsak konpontzeko bi lanegunekoa.

Errekurritutako ekintza behin-behineko esleipena bada, kontratazio espedientearen tramitazioa bertan behera geratuko da errekurtsua berriaz ebazten dan arte, eta, beraz, ezin izango da behin betiko esleipenik egin ez kontratua egin. Hala ere, errekurtsua enpresaburu batzuek, kopuru muga barik, parte hartu daikien esparru akordio baten behin-behineko esleipen ekintza baten kontra ezarri bada, ebazpena emoteko eskumena daukan organoak bertan behera geratzea altxatu ahal izango dau errekurtsua aurkeztu danetik bost lanegun igaro eta gero.

Errekurtsu bat aurkezten bada, horren barri emongo jake gainerako interesdunei, eta bost laneguneko epea emongo jake alegazioak aurkezteko. Era berean, espediente tramitatu dauen erakunde, organo edo zerbitzuari espediente eskatuko jako, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko dau jagokon txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsuen prozeduran.

Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan emon beharko dau errekurtsuaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren barri interesdun guztiei emon beharko deutse. Edozein kasutan, errekurtsua jarri zanetik hogeitau lanegun igaro badira eta ez bada ebazpenaren barri eman, interesdunak ez onartuzat jo ahal izango dau administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko eraginetarako, berriazko ebazpena emoteko betebeharraren kalte barik eta, hala bajagoko, berriazko ebazpena emoten dan bitartean, 7. atalean ezarritako bertan behera geratzea altxatu barik.

Errekurtsuaren ebazpenak errekurtsua edo haren parte bat baietsiko dauz, edo formulatutako asmoak ezetsiko dauz, edo ez onartuzat adieraziko dauz, eta arrazoituta erabakiko dauz aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabideagaz eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko dau, lehiaketa iragarkian, gonbite iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketagaz edo esleipenagaz

zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzera eraginaren gainean edo prozedurako arau-haustearen ondorioz kalteak jaso dabezan pertsonen kalte-ordaina ematearen gainean be.

Errekurtsoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emongo jako 135.4 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekurtsoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

22. JURISDIKZIO ESKUDUNA.-

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi be, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

Bermeon, 2008ko azaroaren 24an